



**HONDARRIBIA LANTZEN, S.A. (Pertsona bakarrekoea) LIKIDAZIOAN
URTEKO EKITALDIARI DAGOKION MEMORIA LABURTUA
2024ko ABENDUAREN 31n BUKATUA**

(1) Sozietatearen jarduera

HONDARRIBIA LANTZEN, S.A. (Pertsona bakarra) LIKIDAZIOAN, bere helbide fiskala Hondarribiko Kale Nagusiko 20 zenbakian duelarik, 1992ko maiatzaren 26an eratu zen eta bere helburu soziala etxebizitzetarako, industriagintzarako eta era guztietako zerbitzuetarako eraikinak egiteko lurzorua sustatu, taxutu, hiritartu, erosi eta saltzea da, eta aldi berean, onura publiko edo pribaturako etxebizitzak, industriarako eraikinak, zerbitzuak eta HONDARRIBIAren eta bertako biztanleen onerako izan daitezkeen zerbitzu eta hornidura komunitarioak sustatu, proiektatu, eraiki, erosi, saldu eta beste nolabait laga eta kudeatzea.

Sozietatea osorik Hondarribiko Udalaren kontrolpean dago, berak baititu beronen akzio guztiak.

"HONDARRIBIA LANTZEN, S.A. (Pertsona bakarra) LIKIDAZIOAN" likidazio prozesuan sartu zen, 2024ko uztailaren 9an Akziodunen Batzar Nagusian hartutako erabakien ondoren. Hori dela eta, 2024ko abenduaren 31ko urteko kontu hauek formulatzean, zera aplikatzen da, "Finantza informazioaren esparruari buruzko 2013ko urriaren 18ko Ebazpena funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa aplikatzea egokia ez denean".

(2) Urteko Kontu Laburtuak Aurkezteko Oinarriak

a) Irudi zehatza-

2023ko abenduaren 31n amaitutako urteko kontu laburtuak Sozietatearen kontabilitate erregistroetatik abiatuta prestatu dira, eta indarrean dagoen merkataritza legeriaren eta azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kontabilitate Plan Orokorraren arabera aurkeztu dira, kontuan hartuta, batetik, ez dela aplikagarria funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa, Sozietatea LIKIDAZIO fasean dagoelako, DESEGITEAREN zain, eta bestetik kontabilitate arloan indarrean dauden gainerako lege xedapenak, ekitaldian zehar Sozietatean gertatu diren eragiketen ondarearen eta finantza egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusteko.

2023eko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak 2024ko maiatzaren 9an Sozietateko Ohiko Akziodun Bakarrak onartuak dira.

b) Kontabilitate printzipioak-

2024ko ekitaldiko urteko kontuak egiteko, aplikatzekoa den finantza informazioaren arau esparruari jarraitu zaio, eta, bereziki, 4. oharrean deskribatutako erregistro eta balorazio arauei jarraitu zaie. Urteko kontu hauek printzipio guztiak kontuan hartuta formulatu dira, Funtzionamenduko Enpresaren printzipioa eta nahitaez aplikatu beharreko kontabilitate-arauak izan ezik, horiek eragin esanguratsua baitute urteko kontu horietan. Urteko kontu hauek egiteko beharrezko gainerako kontabilitate-printzipioak aplikatu dira. Era berean, ez da nahitaezkoak ez diren kontabilitate-printzipiorik aplikatu.

c) Ziurgabetasunaren balorazioaren eta estimazioaren alderdi kritikoak.



2024ko ekitaldiko urteko kontuak prestatzeko, sozietatearen likidatzaileek egindako judizioak eta zenbatespenak erabili dira, haietan erregistratuta dauden aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk kuantifikatzeko. Kalkulu horiek esperientzia historikoan eta egungo egoeran arrazoizkotzat jotzen diren beste faktore batzuetan oinarrituta daude.

* Likidazioa dela-eta eskualdatu beharreko aktiboak jabari publikoko ondasunen kategorian sartzen dira, bat etorri Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 5.1 artikularekin, erabilera publikoari edo zerbitzu publikoari atxikita dauden titulartasun publikoko ondasunak diren heinean. Halaber, Lege horren 6. artikulua ondasun horiei buruzko printzipioak ezartzen ditu: besterenezintasuna, enbargaezintasuna eta preskribaezintasuna.

Horrek esan nahi du aktibo horiek ezin direla ohiko mekanismoen bidez zergapetu, ezta besterendu ere, erabilera publikorako loturari eusten dioten bitartean; beraz, merkataritzatik kanpo geratzen diren ondasunak dira, besterentzeko alde aurretik desafektazioa egin behar baita, legezko prozedura baten bidez. Aurrekoan oinarrituta, ez dago merkatu librerik Hondarribia Lantzen SAREN titulartasuneko ondasunetarako. Auzitegi Gorenaren 2022ko urriaren 11ko Epaiak (6087/2020 errekurtsua) aierazi zuen jabari publikoko ondasunei ezin zitzaizela aplikatu merkatuko balioaren kontzeptua: "(...)Horrenbestez, babes konstituzionalagatik besterenezinak diren ondasunei ustezko merkatu-balioa eman nahi zaie (132 CE). Merkatutik kanpo geratzen dira, extra commer, eta, beraz, ezin da merkatu-balioaz hitz egin haiekiko.

Era berean, Zergen Zuzendaritza Nagusiak, BEZaren esparruan, V2429-21 kontsultan aztertu zuen udal-enpresa publiko batetik bere Udalari ondasunak eskualdatzean ez dela benetan ondasun-ematerik gertatzen, ez direlako jabari publikoko jabetza osoaren ahalmenak eskualdatzen, ondasunak zerbitzu publiko berari atxikita jarraituko luketelako eskualdaketa ondoan.

Hori dela eta, likidatzaileen ustez, ez da zuhurra ondasun higiezinaren balioa handitzea.

d) Informazioaren erkaketa-

Merkataritza-legeriaren arabera, sozietatearen likidatzaileek, balantzeko eta galera eta irabazien kontuko partida bakoitzarekin konparatzeko, ixten den ekitaldiari dagozkion zifrez gain, aurreko ekitaldikoak ere aurkezten dituzte.

e) Kontabilitate-irizpideak aldatzea-

2024ko ekitaldian ez da aldaketa esanguratsurik izan kontabilitate-irizpideetan, aurreko ekitaldian aplikatutako irizpideekin alderatuta.

(3) Emaizten aplikazioa

Sozietatearen likidatzaileek akziodun bakarraren onespeneraren mende jarriko dute 2024ko ekitaldiko galera guztiak "Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak" kontuan aplikatzea.

(4) Erregistro eta balorazio arauak



Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako arauen arabera 2024ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldirako urteko kontuak burutzerakoan Sozietateak erabilitako erregistro eta balorazio arau nagusiak hauek dira:

a) Higiezineta inbertsioak-

“Ondasun higiezineta balioak” epigrafeak errentak lortzeko jabetzan dauden ibilgetuei dagozkien Sozietateko aktibo ez korranteak jasotzen ditu.

Bestetik, Sozietateari ordainik gabe lagatako erabilerarako eskubidea duten Udalaren jabetzako higiezineta inbertsioak salmenta balioaren arabera erregistratzen dira (5. Oharra).

Gainontzeko higiezineta inbertsioak eskuratu zireneko kostuaren arabera daude baloratuta, hau dagokion pilaturiko amortizazioaren eta izan dituen narriaduraren ondoriozko galeren garbia izanik. Osagai bakoitza eskuratzeagatik ordaindutakoaz gain kostuaren barruan egongo lirateke aktiboa fabrikatu edo eskuratzearen ondoriozko eraikitze garaian sortutako finantza gastuak ere, baldin eta urte bete baino gehiagoko epea behar badute erabiltzeko moduan izateko. Ekitaldian ez da kontzeptu horren ondoriozko kopururik aktibatu.

Hondartza Kiroldesia desegitearen ondorioz hartutako obligazioen gaur egungo balorearen balioespena ere ondasun higiezineta inbertsioen balorearen osagaia da (4 g Oharra).

Osagai osoen berritze edo ordezkatzak, eta objektuaren erabilpen bizitza, bere etekina edo gaitasun ekonomikoa handitzen duten gehikuntza, hobekuntza edo modernizazio kostuak, ondasun higiezineta inbertsioen zenbateko handiena bezala kontabilizatzen dira, eta hala ordezkatu edo berritutako osagaiak kontabilitatetik kenduko dira.

Mantenu, kontserbazio eta konpontze gastu periodikoak emaitzei egozten zaizkie, sortapen printzipioari jarraituz, suertatzen direneko ekitaldiko kostu gisa.

Amortizazioa metodo lineala aplikatuz kalkulatzen da, aktiboak eskuratzeko kostuaren gainean hondar-balioa kenduta. Ondasun higiezineta inbertsioen amortizazio gisa azaltzen diren urteko zuzkidurak galera eta irabazien kontuan kontrapartida eginez burutzen dira, eta oro har osagaien batz besteko erabilpen bizitzaren urteen arabera ezarritako amortizazio portzentajeen parekoak dira, jarraian agertzen den gisa:

	Urteak
Eraikinak	50
Altzariak	6,6
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	5

Erregistraturiko ondasun higiezineta inbertsioen osagaien erabilpen bizitzak gaitzen badu “Hondartza” kiroldegia eraikia deneko itsaso/lehorreko jabari publikoaren okupaziorako Estatuko administrazioak emandako epea, amortizazioa honela kalkulatzen da: geratzen den epearen ondoriozko urteko portzentajea aplikatuz.

Ibilgetuari erantsitako osagaien amortizazioa funtzionatzen hasi ondorengo hilabeteen hasten da erregistratzen.

Sozietateko likidatzailearen ustetan aktiboen kontabilitate balioak ez du aktiboen balio berreskuragarria gaitzen.

Aktiboa besterenganatu edo kentzearen ondoriozko mozkin salmentaren etekina eta aktiboaren liburu-balioaren arteko aldea eginez kalkulatzen da, eta galeren eta irabazien kontuan azaltzen da.



b) Aktibo ez finantzarioen balioa narriatzearen ondoriozko galerak- Diru-fluxuak sortzen ez dituzten aktiboak

“Eskudiru-fluxuak sortzen ez dituzten aktibotzat” hartuko dira Sozietatearentzat etekin ekonomikorik sortzen ez duen jarduera batean diharduten aktiboak, hau da, fluxu ekonomiko sozialak edo onura publikokoak sortzen dituztenak. Diru-fluxuak sortzen ez dituen aktibo baten narriaduragatiko galera kontabilizatuko da, baldin eta haren kontabilitate-balioa hura zehazten den datan berreskura daitekeen zenbatekoa baino handiagoa bada. Zenbateko hori izango da arrazoizko balioaren, salmenta-kostuen eta erabilera-balioaren arteko handiena. Ebidentzia hoberik ezean, balioa galdutako birjartze-kostuaren arabera zehaztuko da eskudirua sortzen ez duen aktibo baten erabilera-balioa.

Aktibo horien narriaduragatiko galera bat aintzatetsi behar izanez gero, haien kontabilitate-balioa proportzionalki murriztuko da, honako hauen arteko balio handienaren mugaraino: arrazoizko balioa salmenta-kostuak kenduta, balio-galdutako birjartze-kostua eta zero.

Diru-fluxuak sortzen ez dituzten aktiboen narriaduragatik egindako balio-zuzenketak, eta zuzenketa eragin zuten arrazoiak desagertu direnean egin beharreko lehengoratzak, gastu edo sarrera gisa kontabilizatuko dira, hurrenez hurren, Galera eta Irabazien Kontuan. Narriaduraren lehengoratzaren muga izango da lehengoratzeko datan kontabilizatuta egongo litzatekeen aktiboaren kontabilitate-balioa, balio-narriadurarik erregistratu izan ez balitz.

c) Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste zenbait kontu.

Balantzean aintzatesterako unean baloratzen dira merkatuan duten balioaren arabera, eta gero amortizatutako kostuan baloratzen dira, interes efektiboko tasa erabilita.

Hala ere, hasierako aintzatesteetan eta ondorengoan balio nominalean baloratu ahal izango dira urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten eragiketa komertzialetako hartzekoak, betiere diru-fluxuak ez eguneratzeak garrantzirik ez badu.

Sozietateak ordainketa berandu egiteagatik, ez ordaintzeagatik, kaudimengabeziagatik, atzerapenengatik edo besterengatik ez ohiko egoeran dituen bezeroen zorrak estaltzeko hornikuntza bat egingo du, ustez kobraezinak izango diren zenbatekoen arabera.

d) Parekoak diren beste zenbait aktibo likido-

Balore Zorroaren osagaiak epe laburrean eskuratu ziren prezioan edo itzultze balioan baloratzen dira, azken hori txikiagoa balitz. Epigrafe honen azpian kontabilizatzen dira, likidezia handia baitute eta ez baitute duten balioa aldatzeko arriskurik.

e) Merkataritza hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste zenbait kontu-

Balantzean aintzatesterako unean baloratzen dira merkatuan duten balioaren arabera, eta gero amortizatutako kostuan baloratzen dira, interes efektiboko tasa erabilita.

Hala ere, hasierako aintzatesteetan eta ondorengoan balio nominalean baloratu ahal izango dira urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko



interes-tasarik ez duten eragiketa komertzialetako zorrak, betiere diru-fluxuak ez eguneratzeak garrantzirik ez badu..

f) Dirulaguntzak, dohaintzak eta ondareak-

Itzuliko ez diren kapital dirulaguntzak emandako zenbatekoaren arabera baloratuko dira, hasieran ondare garbiari zuzenean egotzitako diru sarrera gisa azalduta, eta dirulaguntza horiek finantzatutako aktiboek aldi horretan jasandako balio galeraren baitako emaitzei egotziko zaizkie, non eta balioa galtzen ez duten aktiboak ez diren, kasu horretan horiexen inbentarioan besterenganatzea edo baja gertatzen den ekitaldiaren emaitzari egotziko baitzaizkio.

Udal-jabetzako kirol-instalazioak erabiltzeko eskubidea jasotzeko balioespenaren zenbatekoa emaitzei egotzen zaie, modu linealean, erabilera-eskubide horren indarraldirako adostutako epean.

g) Desegiteagatiko hornidura-

Sozietatea itzultzeko funts bat hornitzen aritu da, Estatuko Administrazioak emandako emakida diren lurrak (hain zuzen ere "Hondartza kiroldegia" izeneko "Hondarribiko Kirol Instalazioa" lur horien gainean eraikia da) Estatuko Jabari Publikora itzultzearen ondorioz sortutako gastuei aurre egiteko, egindako ikerketa teknikoaren arabera ekitaldi bakoitzaren itxiera datan kontzeptu honetatik eratorritako kopuruen arabera.

h) Epe luzerako eta laburrerako periodifikatzeak

Sozietatearen jabetzakoak diren lurren gaineko azalera eskubideari eman zitzaion balioa emaitzei egotzen zaie sarrera gisa modu linealean eskubide hori indarrean egon dadin adostutako epean.

i) Saldoak korrontearen eta ez-korrontearen artean sailkatzea-

Erantsirik doan egoera balantzean saldoak korronte eta ez korronte gisa sailkatuta daude. Saldo korronteak Elkarteak ustiatze ziklo arruntean saldu, agortu, gastatu edo burutzea espero duen saldoak dira. Gainontzekoak ez korronteak dira.

j) Mozkinen gaineko zerga-

2024ko ekitaldirako Sozietateen gaineko Zerga Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren arabera likidatu da.

Ekitaldi bakoitzeko Elkartearen gaineko Zergaren gastua zergen aurretiko ekonomi emaitzaren arabera kalkulatzen da, zerga emaitzarekiko alde iraunkorren ondorioz txikitu edo handituta, zerga emaitza izango litzatekeelarik zerga horren oinarri ezargarria.

Inbertsioen ondoriozko murrizketari dagokion zerga onura ekitaldi bakoitzeko Elkartearen gaineko zergaren kopuru txikia gisa ikusten da.

k) Diru-sarrerak eta gastuak-

Sozietateak sortzapen-irizpidearen arabera erregistratzen ditu diru-sarrerak eta gastuak, hau da, horiek ordezkatzeko dituzten ondasunen eta zerbitzuen korronte erreala gertatzen denean, horien ondoriozko moneta-korrontea edo finantza-korrontea gertatzen den unea kontuan hartu gabe.



Diru-sarrera horiek jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioan balioesten dira, deskontuak eta zergak kenduta.

Gastuak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira etorkizuneko onura ekonomikoak murrizten direnean, murrizketa hori modu fidagarrian neur daitekeen aktibo baten murrizketari edo pasibo baten gehikuntzari lotua bada. Honen ondorioz gastu baten erregistroa pasiboa handitzearen edo aktiboa txikitzearen erregistroarekin batera gertatzen da. Gastu bat berehala aitortzen da ordainketa batek ez duenean etorkizuneko ekonomia onurarik sortzen edo aktibo gisa erregistratzeko baldintzak betetzen ez ditenean.

Ondasunak entregatzeagatiko eta zerbitzuak emateagatiko diru-sarrerak

Salmentengatiko diru-sarreraren aitortpena bezeroekin konprometitutako ondasunen edo zerbitzuen kontrola erosleari transferitu zaion unean gertatzen da.

Ondasun edo zerbitzu baten kontrola (bezeroak berehala kontsumitutako aktibo batena) zera da, ondare-elementu horren erabilerari buruz erabat erabakitzeak eta gainerako onura guztiak funtsean lortzeko gaitasuna. Kontrolaren barruan sartzen da beste erakunde batzuek aktiboaren erabilerari buruz erabakitzea eta onurak lortzea eragozteko gaitasuna. Kontrola transferitzeko unean, diru-sarrera baloratzen da enpresak transferitutako ondasunen edo zerbitzuen truke eskubidez jasotzea espero duen kontraprestazioaren zenbatekoan.

Ondasunak entregatzeagatiko edo zerbitzuak emateagatiko diru-sarreraren aitortpena aplikatzeko, Sozietateak prozesu oso bat jarraitzen du, ondoko ondoko etapa hauek dituen:

1. Bezeroarekiko kontratua (edo kontratuak) identifikatzea
2. Kontratuan jasotako jarduera-betebeharrak identifikatzea
3. Transakzioaren edo kontratuaren kontraprestazioaren prezioa zehaztea
4. Transakzioaren prezioa esleitzea kontratuan identifikatutako jarduera-betebeharren artean
5. Diru-sarrerak aitortzea, baldin eta gizarteak jarduera-betebeharrak betetzen baditu (edo betetzen dituen heinean).

I) Alokairu operatiboak-

Alokairu operatiboetan (kasu honetan erabilpen eskubidea ordainarekin lagatzea) alokatutako ondasunaren jabetza, eta funtsean, ondasunaren gaineko arrisku eta abantaila guztiak, alokatzailearenak dira.

2024ko abenduaren 31n Sozietateak bere instalazio batzuk erabiltzeko eskubidea ordainarekin lagata du. (11.a Oharra)

Erabilera eskubide hori lagatzearen ondoriozko sarrerak linealki galera eta irabazien kontuan kontabilizatzen dira, dagokion kontratuaren erabilpen bizitzaren arabera.

m) Kaleratzeagatik emandako kalte-ordainak.

Indarrean dagoen lan araudiaren arabera, elkarrekin zenbait egoeratan lan harremanak desegiten zaizkien langileei kalte-ordainak ordaindu behar dizkie. Ez dago kontzeptu honetarako horniketa kontabilizatzeko arrazoi objektiborik.

n) Taldeko enpresak-

Enpresa edo sozietate baten urteko kontuak aurkezterakoan, beste enpresa bat taldekoa dela ulertuko da bien artean kontroleko lotura bat dagoenean,



zuzenean edo zeharka, Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan sozietate-taldeentzat aurreikusitakoaren antzekoa, edo bi enpresak, edozein modutan, pertsona fisiko edo juridiko batek kontrolatzen dituenean (edo pertsona fisiko edo juridiko multzo batek, pertsona horiek batera jarduten badute edo zuzendaritza bakarraren azpian badaude akordioen edo estatutu klausulen ondorioz).

Taldeko enpresatzat Hondarribiko Udala hartzen da.

o) Ingurumenean eragina duten enpresa ekintzak-

Ingurumenean Elkartek jarduera normaltasunez garatzeak sor litzakeen eraginak mugatu edo kontrolatzeko eskuratutako sistemak, ekipoak edo instalazioetarako egindako kostuak ibilgetuan egindako inbertsio gisa ikusten dira.

Ingurumenarekin zerikusia duten gainontzeko gastuak, ibilgetuko elementuak eskuratzekoak ez direnak, ekitaldiko gastutzat hartzen dira.

(5) Ondasun higiezinetakako Inbertsioak

2024ko eta 2023ko ekitaldietan ondasun higiezinetakako inbertsioen kontuetan eta pilaturiko euren amortizazioetan erregistraturiko mugimenduak hauexek izan dira:

Mugimenduak	Lursailak eta eraikinak	Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	Guztira
A) 2023ko ekitaldiko hasierako saldoa	23.877.477,41	928.882,36	24.806.359,77
Gehikuntzak	47.873,58	234.161,40	282.034,98
B) 2023ko ekitaldiko azken saldoa	23.925.350,99	1.163.043,76	25.088.394,75
C) 2024ko ekitaldiko hasierako saldoa	23.925.350,99	1.163.043,76	25.088.394,75
Gehikuntzak	58.910,75	57.034,81	115.945,56
D) 2024ko ekitaldiko azken saldoa	23.984.261,75	1.220.078,57	25.204.340,32
E) 2023ko ekitaldiko hasierako saldoaren amortizazio metatua	18.551.209,01	884.029,34	19.435.238,35
Ekitaldiko zuzkidura	968.209,29	37.971,85	1.006.181,14
F) 2023ko ekitaldiko azken saldoaren amortizazio metatua	19.519.418,30	922.001,19	20.441.419,49
G) 2024ko ekitaldiko hasierako saldoaren amortizazio metatua	19.519.418,30	922.001,19	20.441.419,49
Ekitaldiko zuzkidura	982.063,90	60.184,75	1.042.248,65
H) 2024ko ekitaldiko azken saldoaren amortizazio metatua	20.501.482,19	982.185,94	21.483.668,13
2023ko ekitaldiaren amaierako garbia	4.405.932,69	241.042,57	4.646.975,26
2024ko ekitaldiaren amaierako garbia	3.482.779,55	237.892,63	3.720.672,18

“Hondartza” Kiroldegiko instalazioak eraikitzeak obrak hasi ahal izateko Itsaso/lehorreko jabari publikoaren lurra okupatzeko emakida eskatu behar izan zen. 1995eko ekainaren 26an Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioak eskaturiko lurra 30 urtez okupatzeko emakida eman zion Sozietateari. Emakida epea bukatutakoan Estatuko Jabari Publikora itzuliko dira emakida diren lurra, eta Sozietateak lurra leheneratu behar izango ditu. Horretarako, sozietateak egungo balioaren hornidura du, eta haren saldoa, 2024ko abenduaren 31n, 1.651.093 eurokoa da (1.592.183 euro 2023an).



2010eko abenduaren 22ko Administrazio Kontseiluak erabaki zuen Hendaia kaleko 10-beh lokalaren erabilera Agencia de Desarrollo del Bidasoa-Bidasoako Garapenerako Ajentzia SArI lagatzea, enpresa-zentro baten berezko jarduerak gauzatzeko. 2007ko abenduaren 31n aktibo hau balantzearen "Izakinak" epigrafean sartua zenez "Ondasun higiezinetak Inbertsioak" epigrafean birsailkatu zen, eta balio narriaduraren ondoriozko galerak erregistratzeko ezarritako irizpideen arabera, balio osoa oinarri hartuta balio zuzenketa egin zen liburuetan.

1995ean, Hondarribiko kirol-instalazioak (Hondartza kiroldegia) eraikitze obrak esleitu ziren, eta Hondarribiko Udalak emandako kapitaleko dirulaguntzen bidez finantzatu ziren. Udal honek, 1995eko ekainaren 8an egindako osoko bilkuran, instalazio horien sustapena eta eraikuntza sozietateak egitea onartu zuen (8. oharra). Geroago, 2007an, "Eraikuntzak" epigrafe horretan, kiroldegiaren kanpoaldea handitzeari dagokion zenbatekoa erregistratu zen.

2006an Udalak Sozietateari ordainik gabe 2.458.000 euroko salmenta balioan (8. Oharra) 34 urtez "Jostaldi" frontoia erabiltzeko eskubidea laga zion.

Bi instalazioak Kirolzer SL enpresari alokatuta daude.

Kirol-azpiegitura osatzen duten higiezinetak inbertsioak eta haien edukia diru-fluxuak sortzen ez dituzten aktibotzat hartu behar dira, martxoaren 25eko EHA/733/2010 Agindua (enpresa publikoen kontabilitate-alderdi jakin batzuei buruzko arauak onartzen dituena) kontuan hartuta.

Zehazki, aktibo horiek gizarteari etekin ekonomikoa ez ezik, fluxu ekonomiko sozialak edo onura publikokoak ere sortzen dizkion jarduera baterako erabiltzen dira; izan ere, kirol-, kultura- eta gizarte-eragile gisa jarduten duen azpiegitura bat da, lehiakortasunaren alde egiten du, eta kokatuta dagoen udalerriko aisia-, kultura- eta kontsumo-beharrei eta -eskaerei erantzuten die.

2024ko abenduaren 31n, erantsitako balantzearen epigrafe honetan jasota daude 869.219 euroan guztiz amortizatutako elementuak -869.219 2023ko ekitaldiari dagozkio-..

(6) Zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontu batzuk, hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko beste kontu batzuk

2024ko abenduaren 31ko balantzearen aktiboaren epigrafean, funtsean, Administrazio Publikoaren alokairuengatik atxikipenak jasotzen dira.

2024ko abenduaren 31ko balantzearen pasiboaren epigrafeari dagokionez, funtsean, 2024ko ekitaldian egindako ekarpenengatik Hondarribiko Udalari ordaindu beharreko zorra jasotzen du, 275.000 eurokoa.

(7) Funtz Propioak

Erantsitako balantzearen Ondare garbiko epigrafe honetan sartzen diren kontuetako 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko saldoen xehetasuna hau da:

Kontzeptua	Euroak				
	Eskrituratutako kapitala	Legezko erreserba	Borondatezko erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Ekitaldiko emaitza
2023/01/01eko saldoa	6.384.257	187.527	3.792.230	-6.610.110	-2.005.169



2020ko emaitzaren aplikazioa	-	-	-	-2.005.169	2.005.169
2023ko ekitaldiko emaitza	-	-	-	-	-819.528
2023/12/31ko saldoa	6.384.257	187.527	3.792.230	-8.615.279	-819.528
2023ko emaitzaren aplikazioa	-	-	-	-819.528	819.528
2024ko ekitaldiko emaitza	-	-	-	-	-837.314
2024/12/31ko saldoa	6.384.257	187.527	3.792.230	-9.434.807	-837.314

a) Kapital soziala-

2024ko abenduaren 31n kapital soziala 49 akzio izendunez osatua da, horietako bakoitzak 130.291 euroko balio nominala du, erabat sinatuak eta ordaindua da, eta akziodun bakarra Hondarribiko Udala da.

b) Legezko erreserba-

Kapital Sozietateei buruzko Legearen Testu Bateginaren arabera, ekitaldiko mozkinaren % 10 legezko erreserbara bideratu behar da, erreserba hori gutxienez kapital sozialaren % 20ra iritsi arte.

Legezko erreserba honetarako erabili ahal izango da: handituriko kapitalaren %10 gainditzen duen bere saldoaren zatian kapitala handitzeko.

Goian aipaturiko helbururako izan ezik, eta kapital sozialaren %20 gainditzen ez badu, erreserba hau bakarrik galerak konpentsatzeko erabili ahal izango da, eta betiere horretarako beste erreserba eskuragarriak ez badira.

(8) Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta ondareak

2024ko abenduaren 31n balantzearen Ondare Garbiaren epigrafeak islatzen duen saldoa bi multzo hauen arteko aldea da: alde batetik "Hondartza"(5 Oharra) kiroldegia eraikitze obrak finantzatzeko Hondarribiko Udalak emandako kapital dirulaguntzena eta Udalak Elkarteari atxikiriko "Jostaldi"(7 Oharra) pilotalekuaren salmenta balioaren kontrapartidarena eta beste aldetik haiek finantzaturiko inbertsio ondasunei egindako amortizazioekin bat etorritik galera eta irabazien kontuetara transferituriko zenbatekoena, bi horien arteko aldea alegia.

2024ko eta 2023ko ekitaldietan epigrafe honetako kontuetan erregistraturiko mugimenduak hauek dira:

Mugimenduak	Euroak		
	Kapital diru- laguntzak (Hondarza instalazioak)	Kapital diru- laguntzak (Jostaldi pilotalekua)	Guztira
2023ko ekitaldiko hasierako saldoa	732.677	1.271.171	2.003.848
Kenketak	-293.070	-72.294	-365.364
2023ko ekitaldiko azken saldoa	439.607	1.198.877	1.638.484



2024ko ekitaldiko hasierako saldoa	439.607	1.198.877	1.638.484
Kenketak	-293.071	-72.294	-365.365
2023ko ekitaldiko azken saldoa	146.536	1.126.583	1.273.119

(9) Epe luze eta motzeko periodifikatzeak

Erantsirik doan 2024ko eta 2023ko abenduaren 31ko balantzeko pasibo korrontea eta ez korrontearen epigrafe hauek Sozietateak 1993an bere jabetzako lurren gainean azalera eskubidea izatearen ondorioz lorturiko sarreraren emaitzetara egotzi beharreko saldoak dituzte.

Eskubide hori akordioa hartu zenetik hasita 75 urtetarako eratu zen, eta urte horiek iragota Sozietatera leheneratuko dira eraikinak eta eskubide horri atxikiak diren obrak (Puntaleko etxebizitzak). Epea igarota kontratua bukatzen denean, azalera erabiltzeko eskubidea duen Elkartek eratuak dituen eskubide errealek edo pertsonalak iraungi egingo dira.

2024ko eta 2023ko ekitaldietan epigrafe honetan erregistraturiko mugimenduak hauek izan dira:

Mugimenduak	Euroak	
	Azalera eskubidea. "Puntala" etxebizitzak.	Guztira
Epe luzeko periodifikatzeak		
A) 2023ko ekitaldiko hasierako saldoa	474.864	474.864
Traspasoak	-11.769	-11.769
B) 2023ko ekitaldiko azken saldoa	463.095	463.095
C) 2024ko ekitaldiko hasierako saldoa	463.095	463.095
Traspasoak	-11.769	-11.769
D) 2024ko ekitaldiko azken saldoa	451.326	451.326
Epe motzeko periodifikatzeak		
A) 2023ko ekitaldiko hasierako saldoa	11.769	11.769
Gehikuntzak	-	-
(-)Kenketak	-11.769	-11.769
Traspasoak	11.769	11.769
B) 2023ko ekitaldiko azken saldoa	11.769	11.769
C) 2024ko ekitaldiko hasierako saldoa	11.769	11.769
Gehikuntzak	-	-



(-)Kenketak	-11.769	-11.769
Traspasoak	11.769	11.769
D) 2024ko ekitaldiko azken saldoa	11.769	11.769

Kenketak erantsirik doan 2023ko eta 2022ko abenduaren 31n bukatutako urte ekitaldiei dagokien galera eta irabazien kontuko "Ustiaketako beste diru sarrerak" epigrafean islatutako ekitaldiaren emaitzari egotzitaekin bat datoz. (11. Oharra).

(10) Egoera fiskala

Sozietateei buruzko zerga kontabilitate edo ekonomia emaitza oinarri hartuta kalkulatzen da, oro har onartuak diren kontabilitate printzipioak ezarrita lortzen da, eta ez du zertan zerga emaitzaren berdina izan, azken hori zergaren oinarri ezargarri gisa ulertuta.

Ez dira zerga-oinarriaren sartuko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan 2. apartatua edo 36. artikuluan 1. apartatuko a), b) eta c) letretan jasotako zerbitzuetatik eratorritako errentak, lurraldeko, udaleko eta probintziako toki-erakundearen eskumenekoak direnak, salbu eta enpresa mistoaren sistemaren bidez edo kapital erabat pribatuko sistemaren bidez ustiatzen badira, sozietateen gaineko zergari buruzko 2/2014 Faren 39. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Indarrean dauden legezko xedapenen arabera, zerga kitapenak ezin dira behin betikotzat jo harik eta zerga agintariak ikuskatu dituzten arte edo preskripzio epeak igaro diren arte. Sozietateak ikuskagai ditu zerga agintarientzat bere jardueragatik dituen lau azken ekitaldietako zerga guztiak.

Sozietateko Administrazioaileek 2024 ekitaldirako zerga honi lotuak diren kopuruen kalkulua egin dituzte, baita ekitaldi bakoitza ixterakoan indarrean dagoen foru arauarekin bat datozen ikuskagai dauden kopuruenak ere. Bere ustez ez dago ikuskagai diren ekitaldietatik ondoriozta litekeen gertakizun adierazgarririk, ez behintzat urte kontu laburtuetan oro har eragina izango lukeenik.

(11) Sarrerak eta gastuak

a) Ustiaketako beste diru sarrerak-

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagokien galera eta irabazien kontuaren epigrafe honetako kontzeptuen araberrako xehikapena hau da:

Kontzeptua	Euroak	
	2024	2023
Kirolzer, SL. - kanonek eragindako sarrerak	-	-
Ardora jatetxea- kanonek eragindako sarrerak	9.666	38.059
Energia aurrezpenaren ondoriozko Sarrerak- Kirolzer, SL	-	-
Azalera eskubideagatik sarrerak "Puntala" (9. oharra)	11.769	11.768



Aurreko ekitaldietan Sozietateak elkarte instalazioen emakidadunekin honako gutxieneko kanonen zenbatekoak ditu kontratatatuak (erabilera eskubidea ordainaren truke laga zaielarik), kontuan izan gabe gastu arrunten ondorioak, etorkizuneko KPIren ondorioz gerta litezkeen igoerak, eta kontratu bidez hitzarturiko kanonen geroko eguneratzeak:

- Kirolzer, S.L.: Enpresa hau Elkartearen Kirol instalazioak kudeatzeaz arduratzen da: "Hondartza" kiroldegia (kanpo aldeko kirol gunea barne) eta "Jostaldi" pilotalekua. 2014-2016 aldirako aurreikusitako gutxieneko urteko diru-sarrerak, eta, hala badagokio, 2017-2019 aldirako luzapena, 250.000 eurotan finkatu ziren, urteko gutxieneko inbertsioak egiteaz gain (15.000 euro). 2024an, kontratua amaituta zegoen, eta, legez, kontraturik indarrean ez zegoenez, emakidadunak ez zuen kanona ordaintzeko betebeharririk; beraz, 2024an ez zen diru-sarrerarik sortu kontzeptu horrengatik.
- Ardora Jatetxea: Kanona salmenten %7 da. 2012ko abenduaren 20an sinatu kontratua, 2016ko abendura arte balio zuena. 2024ko apirilaren amaieran, Adora jatetxe bere jarduera amaitu zuen.

b) Beste ustiapen-gastu batzuk

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiei dagokien galera eta irabazien kontuaren epigrafe honetako kontzeptuen araberrako xehekapena hau da:

Deskribapena	2024	2023
Konponketak eta kontserbazioa	3.277	-
Profesional independenteen zerbitzuak	22.416	31.406
Aseguruen primak	5.578	4.848
Banketxe zerbitzuak eta antzekoak	44	-
Hornidurak	-	373
Komunitateko gastuak	1.851	581
Beste zerbitzu batzuk	9.721	1.679
Bestelako zergak	40.657	46.261
Bestelako ustiatze gastuak (*)	129.527	143.357
Eragiketa komertzialerako galerak, narriadura eta hornidura-aldaketak	-	-
	213.071	228.505

(*) 2013ko abenduan, Hondarribia Lantzen SAK Hondartza Kiroldegia udal-kiroldegia eta Jostaldi pilotalekuaren instalazioak kudeatzeko, ustiatzeko, mantentzeko eta garbitzeko kontratua esleitu zion KIROLZER SA enpresari, 7 urterako, 2020ko abenduaren 31ra arte.

Kiroldegi hori kudeatzen duen KIROLZER SA enpresak Sozietateari eskatu zion zerbitzuak emateko kontratua ekonomikoki berrezartzeko, zerbitzu-emakidako kontratuari aplikatzen zaion araudiaren arabera, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren aurrean alarma-egoera deklaratzeko eta sinatutako kontratua amaitzeak gastuak handitzearen eta diru-sarrerak murriztearen arloan eragindako kalteengatik.

Txosten juridikoetan jasotako irizpideen eta aditu independenteek egindako txosten ekonomiko baten kuantifikazioaren arabera, sozietatearen Administrazio Kontseiluak 2022ko urriaren 27an onartu zituen KIROLZER SLri ordaindu beharreko zenbatekoak (1.106.652 euro), 2020ko ekitaldiaren hasieratik 2022ko ekainaren 30era arte ondarea berrezartzeko. Ondoren, sozietateko akziodunen batzarrak 2022ko azaroaren 3an berretsi



zuen. Aurreko akordioarekin bat etorritik, sozietateak 2022ko ekitaldia ixtean sortutako berrezartze ekonomikoaren eragina erregistratu zuen, eta aipatutako zigorraren zati bat ordaindu zuen. 2022ko abenduaren 31n 190.586 euro geratzen ziren ordaintzeko.

2023ko uztailaren 13ko Osoko Bilkuran, HONDARRIBIA LANTZEN SAUn 2022ko ekitaldiari dagokionez egindako legezkotasun-auditoretzaren emaitzaren berri eman zen. Bertan, MAZARS AUDITORES SLPren gomendioen txostena (2023ko ekainaren 22koa) eta Hondarribiko Udaleko kontu-hartzaile andreakin finantza-kontrolaren txostena (2023ko ekainaren 23koa) aurkeztu ziren. Txosten horien arabera, KIROLZER SLri 756.192,66 € ordaindu behar zitzaizkion, hau da, ordaindutako zenbatekoarekiko 222.030 euroko aldea zegoen (gehiegi ordaindutakoa).

Txosten juridikoetan jasotako irizpideen eta aditu independenteek egindako txosten ekonomiko baten kuantifikazioaren arabera, sozietatearen Administrazio Kontseiluak 2024ko martxoaren 27an onartu zituen KIROLZER SLri ordaindu beharreko zenbatekoak (333.942 euro), 2022ko ekitaldiaren bigarren seihilekoaren eta 2023ko ekitaldiaren ondarea berrezartzeko, behin 2022ko ekainaren 30a arte egindako likidazioaren ordaindutako gehiegizko kopurua kenduta. Ondoren, sozietateko akziodunen batzarrak 2024ko martxoaren 27an berretsi zuen.

2024ko ekitaldian, KIROLZERek berronaka eskatu zuen urtarilaren 1etik uztailaren 9ra, 129.527 eurokoa. HONDARRIBIA LANTZEN, SAUk zenbateko hori onartu eta ordaindu du, eta hurrengo orokak Hondarribiko Udalak hartuko ditu bere gain.

(12) Administrazio Kontseiluari buruzko informazioa

2024ko ekitaldian aldaketa esanguratsuak izan dira Administrazio Kontseiluaren osakeran, karguak utzi baitituzte eta Hondarribia Lantzen, SAUko likidatzaileak izendatu baitira. Aldaketa horiek formalizatu eta berretsi egin ziren 2024ko abenduaren 18ko notario-eskrituraren bidez; honako hau jasotzen da bertan:

1. 1. Administrazio Kontseiluko egungo kide guztien kargu-uztea.
2. Likidatzaile izendatzea honako hauek:
 - a. Igor Enparan Araneta jauna
 - b. Guadalupe Queiruga Oronoz andrea
 - c. Ortzi Alonso Murelaga jauna
 - d. Gonzalo Carrion Insausti jauna
 - e. Juan Luis Silanes Aguirre jauna
 - f. Garoa Lekuona Izeta andrea
3. 3. Sozietatea likidatzeko prozesuan idazkaria izendatzea:
 - a. IDAZKARIA: Guadalupe Queiruga Oronoz andrea

Sozietateko administratzaile izateak ez dakar inolako ordainsaririk, eta, beraz, 2024ko eta 2023ko ekitaldietan (azken horretan administratzaile gisa) ez da gasturik egon kontzeptu horrengatik. Bestalde, Sozietateko Administrazio Kontseiluko kideei eta likidatzaileei ez zaie inolako aurre-ordainketarik ez eta inolako krediturik edo bestelako hobaririk eman.

Likidatzaileek eta Administrazio Kontseiluko kideek ez dute partaidetzarik eta ez dute kargurik edo funtziorik betetzen, Sozietate horrek duen helburu sozial berdina, antzekoa edo osagarria duten enpresetan; era berean ez dute Sozietatearekin ohikoa ez den edo merkatuko baldintzetan sartzen ez den eragiketarik egin.



(13) Ingurumenari buruzko informazioa

Oro har, Sozietatearen jarduerak ez dute ingurumen-inpaktu negatiborik eragiten, eta, ondorioz, ez dute balizko ondorio horiek arintzeko kostu edo inbertsio esanguratsurik eragiten.

(14) Bestelako informazioa

(14.1) Auditoretzaren ordainsariak

Hondarribia Lantzen Sozietatearen kontuen auditoretza zerbitzuengatik 2024ko ekitaldian sortutako ordainsariak sartuta daude Hondarribiko Udalaren eta bere mendeko erakundeen Urteko Kontuen auditoretzaren kostuan, eta 20.5702 eurokoak dira (BEZ barne) (2023an 20.570 eurokoak ziren).

(14.2) Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruzko informazioa
Hirugarren xedapen gehigarria. «Informatzeko betebeharra», 15/2010 Legea, uztailaren 5koa

	2024ko ekitaldia	2023ko ekitaldia
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	25,28 egun	30,21 egun

(15) Ondorengo gertaerak

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldia itxi zenetik LIKIDAZIOAN kontu laburtu hauek formulatu diren egunera arte, ez da izan sozietatearen emaitzetan edo ondaregoeran eragin nabarmenik duen ondorengo gertaerarik.



15 orrialde (hau barne) dituen memoria hau Likidatzaileek 2025eko maiatzaren 8ko bileran egina da.

Administrazio Kontseilua:

Izp.: Igor Enparan Araneta jna.
Lehendakaria

Izp.: Garoa Lekuona Izeta and.
Lehendakari-ordea

Izp.: Ortzi Alonso Murelaga jna
Kidea

Izp.: Guadalupe Queiruga Oronoz and.
Kidea

Izp.: Gonzalo Carrión Insausti jna.
Kidea

Izp.: Juan Luis Silanes Aguirre jna.
Kidea